



ANDOAINGO UDALA
Sustapen Ekonomiko,
Enplegu eta Gazteria

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes

Gipuzkoan Gazte Tour-en doinu urbanoak Andoainera iritsiko dira datorren larunbatean, maiatzaren 21ean

- **EASY-S raperoa izango da kartel-burua, eta LAINA eta herriko DJ ANDER + DJ LEINU disko-jartzaileak izango ditu lagun.**
- **Basteroko kontzertua 18:30ean hasiko da eta sarrerak bihar, maiatzak 10, jarriko dira salgai 4 eurotan.**

Gipuzkoako *Gazte Tour* ekimena Andoainera itzuliko da bigarren aldiz datorren larunbatean, gazteentzako musika-proposamen berritzaileekin. Bastero Kulturgunean izango da jaialdia, DJ ANDER eta DJ LEINUP bikotearen, LAINA irundarraren eta EASY-S kartelburuaren eskutik. Sarrerak 4 euro balio dute eta bihartik aurrera, maiatzak 10, Basteroko leihatiletan eta Kutxabanken webgunean erosi ahal izango dira.

Gazte Tour Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa bat da, eta musikaren eta arte eszenikoen inguruko hainbat jardura biltzen ditu, beste eragile eta udalerrri batzuekin lankidetzan, gazte eta nerabeei kultura-programazioa eskaintzeko eta haien interes eta gogoetara hurbiltzen saiatzeko. Aldundiko eta Udaleko Gazteria sailek ekimena garatzen laguntzen dute. Hala, lehenengo edizioaren arrakastaren ondotik, bi erakundeek bigarren edizio hau egiteko borondatea berretsi dute. Erronka oraingo honetan Bastero lehen mailako erritmo urbanoez betetzea izango da, Easy-S bezalako erreferenteak artista emergenteekin eta kasu honetan andoaindarrekin nahastuz.

Horrela, Andoaingo hitzorduak tokiko izaera nabarmena izango du, **DJ ANDER**ek, gaur egun Donostiako Somport pubean etxeko DJ gisa diharduenak (musika komertziala, reggaetona eta urban generoak), eta **DJ LEINU**pek, artista autodidakta bertsaltailak (urban generoak eta elektronika), parte hartuko baitute.

Laina (Ainara Rodriguez) abeslari irundarrak hartuko du lekukoa, hastapenetan den artista, raparen eragin handiarekin eta poesia ukituko proposamena ekarriko duena. 2020an kaleratu zuen lehen singlea eta gaur egun disko berriari ari da lanean.

Azkenik, **EASY-S** artistak hartuko du Basteroko agertokia. Malagako *Space Hammurabi* kolektiboko rapero bat da. Hainbat single atera ditu eta milioika ikustaldi pilatu ditu interneten, hala nola "Puro" edo "La placita", eta 2020aren amaieran atera zuen bere bakarkako iraupen luzeko lehen erreferentzia: "Countach 93". LPak plataformetan izan zuen harrera onarekin eta handik hilabete batzuetara, 2021aren hasieran *HAMMU NATION* plazaratu zuen eta 2021eko abenduan *PARIS TAPES. 7* abestiz osatutako lan hau eta proiektua nola egin zen azaltzen duen dokumentala mugarri izan dira haren ibilbide musikalean. J.Moodsekin batera rapari ikuspegi berri bat ematea lortu du, herri musikaren moldeei eta rap tradizionalaren kanonei izkin egin eta sormen bide berriak urratuz.

Andoain, 2022ko maiatzak 9.